

UDAL BATZARRA 10/03

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO
OHIZKANPOKO ETA PREMIAZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Rafael Uribarren Axpe

IDAZKARIA:

Oskar Azkona Garcia

AZTERGAIAK:

- 1.-Osoko Bilkurak ezohiko eta premiazko bilera egiteko beharra onartzea.
- 2.-Oskar Azkona Garcia Bitarteko Idazkariaren izendapenaren berri ematea.

Anoetako Udaletxean, bi mila eta hiruko maiatzaren hogeita hiruan, arratsaldeko seiak bost gutxi direnean, Udal-Batzarra bildu da, Ezohiko eta Premiazko Bilkura egiteko asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Oskar Azkona Garciak, Udal honetan Bitarteko Idazkari bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-Osoko Bilkurak ezohiko eta premiazko bilera egiteko beharra onartzea.

Alkateak azaldu du Bitarteko Idazkariaren izendapenaren berri eman behar zaiola Osoko Bilkurari, eta egokia dela udal hauteskundeak baino lehen egitea. Ikusirik gaurko deituta zegoen Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko berandu zela, ezohiko eta premiazko bilera deitzea erabaki duela, arratsaldeko bostetan hasi behar zuenaren ostean egiteko.

Osoko Bilkuran daudenek, ahobatez onartu dute.

2.-Oskar Azkona Garcia Bitarteko Idazkariaren izendapenaren berri ematea.

Alkateak izendapenaren berri eman du, eta Osoko Bilkuran daudenek ahobatez onartu dute.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seiak eta bost direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

O.E

ALKATEA

Bitarteko IDAZKARIA